

Gure aplikazioaren bezero nagusiak janzkera zaindu eta gustuko estiloa izan nahi duten pertsonak izango dira. Bereziki, gazteak eta heldu gazteak (15–35 urte bitartekoak) izango dira gure jomuga nagusia, modaren inguruko interesa dutelako eta mugikorra etengabe erabiltzen dutelako.

Era berean, koloreen eta estiloaren bidez euren nortasuna adierazi nahi duten pertsonen zuzenduta dago. Bezero hauek erraztasuna, gomendio pertsonalizatuak eta denbora aurrezteak bilatzen dute. Horregatik, gure aplikazioak janzteko ideiak eta estilo gomendioak eskaintzen dizkie, euren gustu pertsonaletara egokituta.

Gure bezero potentzialak hirietan edo ingurune urbanoetan bizi dira gehienbat, eta modaren joerei adi egoten dira. Horregatik, teknologia eta moda uztartzen dituen tresna bat eskaintzea egokia da haienentzat.